

**EBAZPENA, 2020KO EKAINAREN 1EKOA, OSASUN SAILBURUORDEARENA, 2020KO UZTAILAREN 12RAKO DEITUTAKO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETARAKO OSASUN GIDALERROEI BURUZKOA.**

2020ko uztailaren 12rako deitu diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak COVID-19aren hedapenaren ondoriozko osasun-larrialdiko fase akutu bat gainditu ondoren egingo dira, eta egoeraren eboluzioa ikusita, egoera berriak prebentzioagatik eskatzen dituen osasun publikoko jarraibide zehatzak sartu beharko dira hauteskunderen antolaketan.

Deseskalatze-planen arabera, normaltasun berriko batean egon gaitzkeela aurreikusten da. Hala ere, zuhertasun-printzipioa dela eta, gidalerro horiek beharrezkotzat jotzen dute neurri higienikoei eta babes-ekipamenduen zein distantzia sozialaren nahitaezkotasunari edo gomendioari eustea. Gidalerro horiek arlo horretan indarrean dauden arauak, normaltasun berrirako trantsizioan aurreikusitako plangintza eta egoera epidemiologikoaren bilakaera dituzte oinarri.

Gidalerro horien helburu nagusia da baldintzak sortzea herritarrek botoa emateko eskubidea bermekin erabili ahal izan dezaten, osasun publikoa zainduta eta epidemiak izan duen arriskua une bakoitzean dauden baldintzen arabera minimizatuta.

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuan ezarritako eskumenen arabera, 9.1.p) artikuluan Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari esleitzen zaio, osasun-agintaritzaren aldetik, jarduketa sanitarioak koordinatzea, osasun publikoaren eremuko alerta-egoera ororen aurrean, eta l) idatz-zatian, berriz, agintari sanitario gisa, indarreko legedian xedatzen diren administrazio-eskumenak erabiltzea, hauek guztiak gauzatu ahal izateko: kontrol sanitarioa eta erregistroa, arriskuen ebaluazioa eta esku-hartze publikoa elikadura-higienean eta -segurtasunean, edateko uren kalitatean, ingurumenaren osasungarritasunean, bioziden arloan, hondakin sanitarioen kudeaketan, eta osasun publikoaren babesarekin zerikusia duten gainerako jardueretan.

Martxoaren 12ko Ebazpenaren bidez, Osasun sailburuordeak bere gain hartu du Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariari agintari sanitario gisa esleitutako ahalmenak baliatzea, hau da, jarduera sanitario guztiak koordinatzea osasun publikoaren arloko alerta-egoera guztien aurrean.

Ondorioz.

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Hauteskunde-kanpainako ekitaldietarako tokiei eta ekitaldiei buruzko jarraibideak.

1.- Udalek hauteskunde-karteletarako tokiak eta kanpaina-ekitaldietarako lokal eta leku publikoak zehazteko, udalerrri bakoitzean erabilgarri daudenak hartuko dira kontuan,



hargatik eragotzi gabe indarrean dagoen araudiak eta osasun-agintariak higie eta osasun-baldintzei eta okupazioari buruz xedatu dezaketenak horiek benetan erabiltzea baldintzatzea.

2.- Alderdi politikoek araudiak eta osasun-agintariak unean-unean pertsona kopuru jakin bat baino gehiago biltzen dituzten ekitaldi publikoei buruz planteatzen dituzten eskakizunetara egokitu beharko dituzte hauteskunde-kanpainako ekitaldi publikoak. Babes kolektibo eta indibidualeko neurriak hartzeari kalterik egin gabe, behar diren doikuntzak egingo dira ekitaldien antolaketari dagokionez (sarbideak, fluxuak, bertaratzen diren pertsonak eserita edo bereizita ezartzea eta horien irteerak), edukieratik gorako pertsona-kopuruak edukitzeko arriskua eta segurtasuneko gutxieneko distantziak gordetzea arriskuan jar dezaketenak saihesteko.

3.- Hauteskunde-ekitaldietan, ondorengo hauek saihestuko dira:

a) Kontaktua pertsonala, ezarritako segurtasun-distantzia une oro mantenduz.

b) Edozein objektu edo liburuxka eskura ematea.

4.- Ekitaldien antolatzaileak edo udalak -horiek egiteko baimena emanaz gero- arduratuko dira ekitaldien guneak eta lekuak behar bezala garbitzeaz eta desinfektatzeaz, indarrean dagoen araudian eta osasun-agintarien jarraibideetan ezarritakoaren arabera.

5.- Lokal itxietan egiten diren hauteskunde-ekintzetan, gel hidroalkoholiko birizida baimenduak jarriko dira sarreran, eta erabiltzeko moduan egon beharko dute beti; irteeran, berriz, eskuz eragitekoak ez diren zabor-ontzi tapadunak egongo dira, eta zabor-poltsa ere edukiko dute.

Bigarrena.- Hauteskunde-mahaien eraketari, kokapenari eta barne-antolamenduari buruzko jarraibideak.

1.- Hauteskundeetako barrutiak, lokalak eta mahaiak zehazterakoan, saihestu egin behar da hauteslekuak adinekoen egoitzetan edo epe luzeko zaintza-lekuetan kokatzea, edo, bestela, sarbiderik ez dagoela eta barneko pertsonak edo egoiliarak erabat isolatuta egotea bermatu behar da.

2.- Areto edo gela berean hauteskunde-mahai bat baino gehiago badago, bi metroko tartea bermatu beharko da elkarren artean.

3.- Mahaia osatzen duten pertsonak maskara eramango dute eta 1,5 m-ko tartea egongo da, gutxienez, euren artean.

4.- Hauteskunde-mahaiak dauden aretoetan, arestian aipatutako tarte fisikoa egongo da hautestontzien eta altzari-elementuen artean.

5.- Behar bezala seinaleztatuko da, lurrean markak ezarrita, hautatzaile bakoitzak bere txanda iritsi arte eduki behar duen lekua, dagokion separazio-tartea bermatzeko.

6.- Bozketa-kabinak behar bezala aldentuta egongo dira elkarren artean, bai eta hauteskunde-mahaiari dagokionez ere, eta ez da beharrezkoa izango isolatzeko gortina erabiltzea.



7.- Antolaketa-neurriak hartu beharko dira boto-emaileak hauteslekura modu ordenatuan sartzea bermatzeko, bai eta hautesleku barruko fluxua eta irteerakoa bermatzeko ere; hala, pilaketak saihesten eta behar diren distantziak gordetzen saiatu beharko da. Lokaletik kanpo edo lokalaren barruan zain dauden pertsonen artean segurtasun-distantziak gordetzen direla ziurtatzeko, lurrian zintak edo seinaleak jartzea gomendatzen da.

8.- Sarrerak eta irteerak antolatuko dira, hauteslekuen sarbideetan eta inguruetan jendea pilatzea saihesteko. Ilarak sortzen badira, lehentasuna emango zaie hautesle ahulei, 65 urtetik gorako pertsoneri edo haurdun dauden emakumeei, bozketa-mahaietan ahalik eta denbora gutxien igarotzea bermatzeko, adibidez, ilara bereiziak osatzeko aukera edo beharrezko egokitzapena emanez.

9.- Hautesleak hauteslekuan ahalik eta denbora gutxien egoteko neurriak hartuko dira; besteak beste, botoa ematera joan aurretik errolda-txartela berrikustea gomendatuko da; seinale argiak edukiko dira hauteslekuan, hauteskundeetako langileei hautesleak mahaira bideratzen laguntzeko; boto-emailea multzoak ez osatzera edota eskua ez ematera animatzeko, edo lokalaren barruan botoa eman aurretik edo ondoren geldirik ez geratzeko eskatzeko.

Hirugarrena.- Posta bidezko botoen inguruko jarraibideak.

1.- Posta bidezko botoa formalizatzeko jarduerak, aurrez aurre egiten direnean, indarreko araudian ezarritako jarraibideak bete beharko dituzte, bai eta osasun-agintarien jarraibideak ere, Hauteskunde Batzorde Zentralaren 2020ko maiatzaren 28ko Erabakian xedatutakoa kontuan hartuta.

2.- Egoitza soziosanitarioetan bizi direnek eta ahalordedun bidez eskaera hori egin dezaketen gainerako pertsonak botoa posta bidez emateko duten eskubidea gauzatzeko, dagozkion baldintzak bermatuko dira babes-ekipamenduei, segurtasun-distantziei eta higiene-neurriei dagokienez, hautesleentzat eta botoa formalizatzen laguntzen dutenentzat.

3.- Aurreko atalean aipatzen diren posta bidezko boto-eskaeretan ahalordea emateko notarioaren esku-hartzeari dagokionez, maskara eta eskularruak erabili beharko dituzte fede-emaileak, ahalduak eta lekukotza ematen dutenek, egoitza soziosanitarioetan edo etxe partikularretan egiten bada.

Laugarrena.- Hauteslekuetarako higienearen inguruko jarraibideak.

1.- Oro har, indarreko araudian ezarritako jarraibideei jarraituko zaie, bai eta osasun-agintarien jarraibideei ere.

2.- Bozketa egin aurretik, hauteskunde-egunean erabiliko diren hauteslekuetako eta lokaletako instalazioak garbitu eta desinfektatuko dira. Lan horiek hauteslekuan dagozkion materialak (hautestontziak, kabinak, mahaiak eta abar) ezarri ondoren egingo dira.

3.- Hauteskunde egunean, aireztatuta mantenduko dira ikastetxeak eta lokalak, eta tarteka garbituko dira mahaiak, hautestontziak eta kabinak, baita komunak eta ateetako, eskudeletako eta maiz ukitzen diren beste azalera batzuetako heldulekuak ere.

4.- Hauteskunde-mahaiak itxitakoan, hauteslekuak garbi eta desinfektatuta daudela bermatu beharko da.

5.- Instalazioetako komunak mahaiko kideek, kontu-hartzaileek eta ahaldunek, eta hauteskunderen zerbitzura dauden gainerako langileek erabili ahal izango dituzte. Beste pertsonak ez dituzte komunak erabiliko, behar-beharrezkoa ez bada. Bozketaren bezperan desinfektatuta egongo dira komunak, eta xaboia, ura eta lehertzeko materiala edukiko dituzte.

6.- Hauteskunde-mahaietan gel hidroalkoholiko edo desinfektatzaile birizidak egongo dira, mahaiko langileentzat, kontu-hartzaileentzat, ahaldunentzat eta hauteskunderen zerbitzura dauden langileentzat.

7.- Hauteslekuek edukiontzia eta paperontzia edukiko dituzte, mukizapiak eta erabili eta botatzeko beste edozein material uzteko.

8.- Hautesleku sarreran, toki seinalatu eta irisgarri batean, gel hidroalkoholiko edo desinfektatzaile biriziden banatzaileak egongo dira, ageriko eta maiz erabiltzen diren lekuetan. Edukiontzia ere egongo dira, mukizapiak eta erabili eta botatzeko beste edozein material uzteko.

Bosgarrena.- Mahaikideak eta hauteskundeetako gainerako pertsonak babesteko jarraibideak.

1.- Mahaikideen artean beste atal batzuek oro har aipatzen duten 1,5 m-ko gutxieneko distantzia errespetatzen saiatu beharko da.

2.- Berriazko kontraindikaziorik ezean, hauteskunde-mahaietako kideek, kontu-hartzaileek, ahaldunek eta administrazioko ordezkariak maskara kirurgikoak edo arnasketa babesteko maskara baliokideak edo babes handiagokoak eraman beharko dituzte.

3.- Komeni da eskuak maiz garbitzea komunetan edo higiene-instalazioetan, bai eta bozketa-mahaietako gel hidroalkoholiko edo desinfektatzaile birizidekin ere.

4.- Botoa emateko kredentzialak edo hauteslearen gutun-azala manipulatzeko saihestuko da, beharrezkoa ez bada.

5.- Mahaikideei eta administrazioko ordezkariari hartutako neurrien berri emango zaie, bai eta norbera babesteko eta norberaren higienarako jarraitu beharreko gomendioen berri ere. Mahaiko kideei eta administrazioko ordezkariari maskarak eta eskularruak emango zaizkie.

Seigarrena.- Hautesleentzako jarraibideak.

1.- Bozketaren unean dauden baldintzen arabera osasun-agintariak ematen dituzten jarraibide eta gomendioei jarraiki, hautesleketan gizalegez eta arduraz bozkatzeko jarraitu beharreko jarraibideak eta urratsak jakinaraziko zaizkie hautesleei.

2.- Informazio hori modu argi eta ulergarrian emango da, une bakoitzean gomendatzen diren higieneko, autobabeseko eta urruntze fisikoko jarraibideak azpimarratuz eta bozketa-prozeduran nola txertatzen diren nabarmenduz. Kartelak jarriko dira hauteskunde lokaletan, osasun gomendioekin.



3.- Komeni da bozketa-mahaiak dauden aretoetan hautesleak ez pilatzea botoa emateko zain, eta hautesleak hauteslekuan botoa emateko behar den denbora baino ez egotea.

4.- Komeni da hautesleak dagokion lokala, barrutia eta mahaia kontsultatzea erroldatxartelean, etxetik irten aurretik; bere dokumentazioa prestatzea eta gutun-azala eta bozketa-orria eskura izatea. Ilarak saihesteko, boto-emaile gehien biltzen diren orduak saihestea komeni da.

5.- Hautesleek babes-maskarak eraman eta erabiliko dituzte, eta bozketa-egunean horri buruz indarrean dauden jarraibideak beteko dituzte. Hautesleak maskara aurpegitik kendu ahal izango du une batez, hauteskunde-mahaiak bere nortasuna ezagutu dezan, une oro segurtasun-distantzia mantenduz.

6.- Hautesleek osasun-agintariek ezarritako jarraibideak edo gomendioak bete beharko dituzte, batez ere higienari, distantzia pertsonalari eta maskarak erabiltzeari dagokienez, bai eta hauteslekuan sarbideen eta fluxuen kudeaketari buruz jasotzen dituzten argibideak ere.

7.- Hauteslekuen sarreran, gel hidroalkoholiko edo desinfektatzaile birizidak jarriko dira, eta hautesleek lokalaren sarreran zein irteeran erabiliko dituzte. Lokalaren irteeran zaborretarako poltsak dituzten edukiontzia jarriko dira, eskularruak, maskarak edo erabilitako paperezko mukizapiak edo erabili eta botatzeko bestelako materiala uzteko.

8.- Hauteslekuko seinaleak ahalik eta argienak izango dira, boto-emaileak orientatzeko, hauteslekuaren barruan igarotzen duten denbora ahalik eta txikiena izateko eta modu ordenatuan jokatzeko.

9.- Hauteskunde-mahaiak dauden aretoetan eta geletan pertsonen arteko distantziak errespetatuz kabitzen diren baino hautesle gehiago egotea saihestu behar da.

10.- Hauteslekuaren barruan, ezarritako segurtasun-distantzia errespetatu beharko du hautesleak, eta ahalik eta kontaktu fisiko txikiena eduki beharko du hauteskunde-mahaian dauden pertsonekin. Era berean, ez du hauteslekuaren barruan edo haren inguruan egonaldia bozketa-ekintzatik harago atzeratuko, eta hauteslekuaren edo lokalaren irteeran edo inguruetan jende-multzorik edo jendetzarik ez sortzen saiatuko da.

11.- Dokumentazio pertsonala edo gutun-azala mahaiburuari fisikoki ez ematen ahalegindu beharko da; nahikoa izango da erakustea.

Zazpigarrena.- Mahaiko zenbaketari, ondorengo jardueri eta zenbaketa orokorrari buruzko jarraibideak.

1.- Parte hartu behar duten pertsonak alde batera utzita, zenbaketako pertsonen kopuruak ebazpen honetan gomendatutako segurtasun-tarteak aintzat hartuta lokalaren edukiera ez gainditzea zainduko du mahaiburuak.

2.- Botoak zenbatzen parte hartzen duten pertsonak ahaleginak egingo dituzte gomendatutako distantziari eta aurreko paragrafoetan aipatutako higiene eta osasun-neurriei eusteko. Horretarako, partikulentzako FFP2 motako maskara autofiltratzaileak eta nitrilozko eskularruak erabiltzea komeni da.



3.- Hauteskundeetako gutun-azalak lehen auzialdiko epaitegietan eta bake-epaitegietan entregatu eta jasotzean, bai eta ondoren hauteskunde-batzordeetan fisikoki entregatzean ere, gomendatutako distantzia gordetzen dela eta maskarak erabiltzen direla ziurtatu behar da, baita eskuak garbitzeko gomendioak betetzen direla ere.

4.- Lurralde Historikoko hauteskunde batzordeetako boto-zenbaketa orokorrean, mahaiko boto-zenbaketaren jarraibide berberak erabiliko dira. Zenbaketa horretan hauteskunde-dokumentazioa manipulatu behar duten pertsonak partikulentzako FFP2 motako maskara autofiltratzaileak eta nitrilozko eskularruak erabiltzea komeni da.

Gasteizen, 2020ko ekainaren 1ean.
Osasun sailburuordea

Ignacio Jesús BERRAONDO ZABALEGUI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD